

Independentzia, demokrazia eta ekonomia

UNAI APAOLAZA
EÑAUT APAOLAZA
JULE GOIKOETXEA

Aurkibidea

Independentzia, demokrazia eta ekonomia Unai eta Eñaut Apaolaza

Independentzia eta demokrazia. Unai Apaolazari elkarrizketa

- 3 Independentzia zergatik?
- 4 Independentzia nola?
- 11 Independentzia noizko?

Independentzia eta ekonomia. Eñaut Apaolazari elkarrizketa

- 13 Independentzia zergatik?
- 20 Ba al dago estrategia independentistarik?
- 21 Independentzia nola?
- 23 Independentzia noizko?



Documentuak 33

Martxo 2016

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

Unai Apaolazari elkarrizketa

Independentzia zergatik?

Jule Goikoetxea: Independentzia zergatik?

Unai Apaolaza: Galdetu beharko litzateke alderantziz, independentzia zergatik ez? Zergatik justifikatu behar dut botere kota handitu nahia, hobeto bizi nahi izatea, zergatik justifikatu menpekotasun egoera? Independentzia nahi dugu hobeto bizitzeko, alor guztietan. Galderari buelta ematen diogunean bide onetik goazenaren seinale izango da.

Zergatik ez zara independentista, alegia.

Hori da.

Nola txertatu daiteke sozioekonomiaren gaia subjektu independentista berri horren eraikuntzan?

Badirudi, independentismoaz hitz egitean, benetakoa arrazoiak, arrazoi objektiboak direla: identitarioa, kulturala, hizkuntzazkoa... (identitarioa, dena den, guztia da; baita sozioekonomia ere). Badirudi faktore benetakoa kulturarekin lotutakoa dela eta ekonomikoa gezurrezkoa dela. Hori ukatu egiten dut, ez da horrela. Ez dago diferentziarik bien artean. Independentzia nahi dugu hobeto bizitzeko, bai soldata hobe nahi duenak, bai euskaraz bizi nahi duenak. Beraz, biok nahi dute hobeto bizi, horretarako aukeratzeko dute independentzia. Hobeto bizitze hori batek identifikatuko

Testu hau Begi Bat Bideoak-ek egindako OTORDUAK saileko <https://youtu.be/dtqShCSVqYM> elkarrizketaren transkripzioa da. Unai Apaolaza filosofiako irakaslea da.

du soldata hobearekin, besteak euskaraz bizi ahal izatearekin, edo biekin, edo ez dakit zerekin. Ez dago mailaketa bat independen-tziarako arrazoen artean; ez daude benetakoak eta azken momentuan apuntatu diren faltsu horiek.

Eskoizian gertatu da, Katalunian gertatu da, eta hemen ere gertatu beharko litzateke, edo behintzat, hauspotu beharko genuke, independen-zia hobeto bizitzeko nahi baitugu. Hobe bizitze hori izango da ekonomiko-a, eta nola ez, demokratikoa, hau da, ahalduntze bat izango da, orain daukagun baina askoz botere gehiago izango du jendeak, argi dago, estatu txikia izango delako, Euskal Herrian tradizionalki politikan parte hartze-ko eta politika kontrolatzeko ohitura gehiago daukagulako, eta askoz hori-zontalagoa izango delako egitura guztia. Beraz, ongizatea izango da alor guztietan, bai ekonomikoan, bai “identitario” deitzen diogun horretan eta denean, denak suspertu behar dira, denak bultzatu.

Badago estrategia independentistarik?

Iruditzen zaizu baduela norbaitek estrategia independentista?

Ez dago estrategia independentistarik. Hasi beharko dugu hori onartzen. Adibidez, 2006 arte bazegoen estrategia bat, gutxi gora-behera gobernu espainiarra eseri behar zen autodeterminazio eskubidea negoziatu edo adosteko. Ados egon zaitezke edo ez estrategia horrekin, baina bazegoen estrategia independentista bat.

Ordutik aurrera, Loiolako prozesuaren ondoren, eskema hori erori egin da eta hasi zen beste estrategia bat sortzen. Hortik dator aldebakartasuna; hortik datoz ideia berriak, nola polarizatu jendea, Gure Esku Dagok ekarri duen ideia berri hori: inori ez diogula eskatu behar, baizik eta guk egin behar dugula. Hor hasten da beste estrategia bat sortzen, baina ez dago oso egituratua. Jendearen gehiengoak ez du inondik inora aldebakartasu-naren ideia ulertzen, horrek daukan potentzialtasuna eta hori zer den. Aldebakartasunaz hitz egitean jendeak galdetzen dizu: “hori zer da, zu bakarrik joatea?” Ez, ez. Aldebakartasuna da indar posizioa zureganatze-ko instrumentua.

Argi dago Espainiarekin momenturen batean negoziatu beharko dugula. Baina ez da berdina orain negoziatzea edo %80ko independentismo aktibo batekin aldebakartasunez estatu bat deklaratzera dihoan mugimendu independentista batekin negoziatzea. Diferentea da.

Negoziatu beharko dugu, gutxienez esateko nola egingo dugun bereizketa modu onean egiteko, autopisten gaia nola jorratuko dugun, zergak nola kudeatuko ditugun... Aldebakartasunak indar posizio horretara eramaten gaitu.

Beraz, ez dudana ulertzen da momentu honetan negoziatzen hastea, aldebikotasunean sartzea. Ez gaude indar posizio batean. Aldebakartasunak ahalbidetzen du indar posizio hori eskuratzea. Zergatik? Zuk marrazten duzulako joko zelaia, zuk erabakitzen duzulako konfrontazio hori non egiten duzun, noiz egiten duzun eta nola egiten duzun. Eta horrek abantaila ematen dizu, indar posizioa ematen dizu.

Argi dago independentista zarela, baina abertzalea zara?

Ez, ez naiz abertzalea, baina abertzaletasunetik nator. Zer da abertzalea izatea nire ustetan? Euskal nazionalismoa nik ulertzen dut estatua lortzeko estrategia baten moduan, eta estrategia horren erreminta nazioa da. Nazioarekin, azken finean, egituratu nahi dena da independentziaren aldeko subjektua. Zuk nazioa marraztu dezakezu era batera edo bestera (hemen, Euskal Herrian, modu askotara marraztu izan dugu), baina betiere subjektu politiko bat egituratzeko erreminta bezala.

Nazioa, nire ustez, ez da subjektu politikoa. Azken finean, subjektu politiko zerk egiten gaitu? Etorbizunera begira daukagun nahi batek. Gainera, nahi horrek kolektiboa behar du izan eta zuk subjektu horren parte izatearen kontzientzia behar duzu izan. Hori da subjektu politiko bat.

Nazioa ez da, berez, subjektu politiko bat; nazioa da subjektu politikoa artikulatzeko modu bat. Izan daiteke eraginkorra edo ez hain eraginkorra, eta eraginkorra izan da orain arte.

Nire ustez nazionalismoa erresistentzia garaietan eraginkorra da. Hau da, subjektu politikoa edo borondate kolektiboa txikitzen ari denean eraginkorra izan daiteke. Zergatik? Jartzen dituen erreferentziak direlako objektiboak, jendeak oso segurutzat ematen dituen horiek: kultura, hizkuntza... "benetakoak" diren horiek.

Hortaz, eusteko balio du, baina hazteko, handitzeko, bere topeak badi-tu. Eta gainera, hemen, Euskal Herrian, nazio sentimendu desberdinak dauden honetan, nazionalismoak edo nazioak ahalbidetu dio ez desager-tzea, aguantatzea, baina zabaltzea ere ekidin egiten dio. Zentzu horretan, nik uste, abertzaletasunak bere topeak badi-tuela. Horregatik, nire ustez, momentu honetan, ez da estrategia egokia, adibidez, %80ko independentismo bat lortzeko.

Eta lortze prozesu horretan hitz egin izan duzu polarizazioaren inguruan. Subjektu berri hori eratzekoan polarizazioak zer esan nahi du? Zer paper dauka? Eta nola funtzionatuko luke subjektu berri hori eratzean?

Argi utzi nahi dut: ni abertzalea ez naiz. Ez nago estrategia abertzalearen alde, beraz, ez naiz abertzalea. Baina horrek ez du esan nahi abertzaletasunak desagertu beharko lukeenik. Badago jende asko nazio sentimendu horren bitartez independentismora iritsiko dena. Horrek existitu behar du, eta hor egon behar du. Baina, beste bide batzuk ireki behar dira eta independentista izateko beste modu batzuk ere egon behar dira, eta, gainera, bultzatu behar dira.

Polarizazioa ongi azaltzeko konfrontazioa azaldu behar da. Konfrontaziorik gabe ez dago politikarik. Politika, azken finean, zer da? Etorkizuna modu diferentean ikusten duten pertsonen arteko talka, gogorragoa edo ez horren gogorra. Hori da, azkenean, politika.

Beraz, beharko genuke ahalik eta independentista gehien sortu, jendartearen gehiengoa independentista izateko. Eta hori lortzeko polarizazioa behar da. Eta polarizazioa nola lortzen duzu? Konfrontazioaren bitartez.

Independentismoak momentu honetan duen erronkarik handiena da konfrontazio gunea definitzea. Izan ditu abertzaletasunak eman dizkion konfrontazio guneak. Zuk subjektu politikoa marrazten duzunean, eta nazioaren bitartez egin da, diskurtso bakoitzak muga batzuk marrazte ditu: euskara dakitenak eta ez dakitenak; espainolak eta euskaldunak... Muga horiek dira konfrontazioa, azkenean, emango den joko zelaia.

Beraz, inportantea da polarizazioa sortzeko diskurtso egoki bat edukitzea, konfrontazio guneak sortzea. Independentismoak urgentea dauka konfrontazio gune berriak sortzea, zehaztea non nahi duen konfrontazio hori egin eta polarizazioa sortu subjektu independentista handitzeko.

Eta konfrontazio horretan polarizazio ardatza berriak zeintzuk izan behar dira? Ze, adibidez, hor dugu Espainian Podemosekin gertatu dena, ardatza berriak sartzen saiatuz ezker/eskuin ardatza alde batera utzi eta jendea/kastaren kontzeptua sartu du. Hemen, prozesu independentistan, zeintzuk izan behar dute ardatz horiek?

Ardatzen kontu hori ideologia da, berez. Ze, ideologia da guk jendartea ulertzeko ditugun betaurreko horiek. Guk jendartea ulertzeko dauzkagun aurreiritziak dira ideologia, guk normalizat ematen duguna. Zer betaurreko izan ditugun hemen, Euskal Herrian, subjektu independentista egiteko?

Azken hamarkadetan euskal jendartea zatitu dugu bi ardatzetan: euskaldunak/espainolak eta ezker/eskuin. Beraz, ikusten genituen Euskal Herriko jendartean lau koadrotxo zeudela. Ematen zuen lau koadrotxo horiek estatikoak zirela, ez zirela mugitzen, eta egin behar zen haien arabera (zuk jendartea banatzen baduzu era batera, egingo dituzun estrategiak ere hala-koak izango dira).

Beraz, inportantea da zuk jendarteari zer begiekin, zer aurreiritziekin, edo zer ideologiarekin begiratzen diozun. Zergatik? Horren arabera estrategiak egingo dituzulako. Eta oraindik hor gaude, baina apurtzen doa pixkanaka.

Hemen, Euskal Herrian, independentziari begira egiten diren estrategiak, oraindik, aurreiritzi edo ideologia jakin baten bitartez egiten dira (aurreiritziak beti ditugu, guk mundua ulertzeko aurreiritzien bitartez egiten dugu). Zer aurreiritziekin ulertu izan da orain arte Euskal Herria? Lehen aipatutako lau koadroen bitartez: euskaldun/espainol eta ezker/eskuin. Horiek sistemak erabat asimilatuta dituen ardatzak dira eta, ondorioz, statu quo-a aldatu ezin duten estrategiak egin ditugu, sistemak, hau da, patriarkatu, kapitalismo espainol/frantsez horrek erabat asimilatuta zituen ardatzak zirelako abiapuntua. Hau da, euskaldun/espainol ardatzen arabera marrazten duzun edozein subjektu politikok ez du inoiz independentziarik lortuko. Eta ezker eta eskuinarekin ardazten baduzu momentu hauetan, ere, ez da sekula jendarte ezkeriar bat edo sozialismoa lortuko. Zergatik? Erabat asimilatuta daudelako, ezin dutelako ezer artikulatu. Artikulatu dutena baino gehiago ezin dutelako ezer artikulatu.

Beraz, Podemos Espainian egiten ari dena ondo dagoela uste dut. Podemos funtzionatzen duten ardatzak plazaratzen ari da. Ardatz batek funtzionatzeko jendartearen gehiengoak ardatz horrekiko aurreiritzi bat izan behar du, hau da, pentsatu behar du ardatz hori ona dela, positiboa dela, eta horren arabera identifikatua sentituko da eta sartuko da subjektu berri horretan.

Guk ere antzeko zerbait egin beharko genuke. Horregatik, nire ustez, independentismoaren konpetidore handiena hemen, Euskal Herrian, Podemos da. Azken finean, terreno berdinean ari gara jolasten, edo jolastu beharko genuke. Independentismoa ez da hasi oraindik terreno horretan. Podemos hasi da eta hasi da unionismorako jendea bereganatzen, unionista baita, eta gainera argi eta garbi esaten du, eta zilegi da, eta oso ondo. Podemosekoa den pertsona horietara guztietara independentismoak aspiratu beharko luke; jende horrek guztiak independentista beharko luke izan.

Horrek esan nahi du, azkenean, hegemonia berri horri, Podemosek lor dezakeena estatuan, kontra-hegemonia bat jarri beharko litzaiokeela? Edozein kasutan, zer da hor hegemonia, edo zeintzuk dira hegemoniaren ondorioak? Zer egingo dugu hitz horrekin? Baliagarria da hegemonia berri bat sortzeko?

Egia esan, aspertuta nago hitz horrekin, baina beno, erabili behar da, eta, orduan, nik nahiago dut hegemonia hitza aipatu gabe hegemonia horrek atzean dituen baliagarritasunak erabiltzea eta balioan jartzea, ze baditu, eta asko gainera.

Batez ere hegemoniaren kontuak zer ahalbidetzen du? Subjektu politikoak artikulatzeko beste era bat. Orain arte gutxi gora-behera modu esentzialista izan dugu, beste hitz maldito edo fetitxea. Hori ez da txarra. Askotan kritikan esaten duzu zerbait esentzialista dela, eta berehala erantzuten dizute “zer ari zara, insultatzen?” Ez, ez nabil insultatzen. Esentzialista izan daiteke ona edo txarra. Onura politikoak ekartzen dizkizunean balia daiteke, baina bestela ez. Ez da ezer pasatzen. Azken finean politikaz ari gara, ez gara egiaz ala gezurraz ari, ari gara baliagarritasunaz hitz egiten.

Beraz, hegemoniaren kontzeptuak zer egiten du? Ba, subjektu politikoak artikulatzeko era bat da, eta horrek egiten duena da aurretik jartzen ditugun baldintza guztiak nolabait ere aparte utzi. Ze guk orain arte subjektu independentista eratzeko beti aurrebaldintzak jarri ditugu. Zein da independentista? Nolabait euskal nazioarekin identifikatzen dena, edo euskara dakiena, edo ez dakit zer. Beti aurrebaldintzak. Hegemoniak zer esaten digu, asko sinplifikatzen: independentista da euskal estatua eratzearen alde dagoena. Eta horrek zer egiten du? Aurretiazko aurreiritzi eta klasifikazio eskemak erditik apurtzen ditu. Horrek zer onura dauka? Subjektua handitzeko ikaragarritzko potentzialtasuna. Inongo mugarik ez dago. Eta hori garrantzitsua da, ze independentismoak izan duen gaitz handienetakoia izan da automugatzea, autolimitazio hori.

Eta prozesu honetan orduan, subjektu berrien eraketan-eta, alderdi politikoek zer paper jokatu behar dute, eskema klasikoak krisian daudelarik? Zer paper ematen diezu alderdi politiko tradizionaleri?

Nik uste ezin dutela, ez luketela behar eta gaitasunik ez dutela, prozesu independentista bat lideratu. Ezin dute, eta ez ziren gai izango subjektu independentista bat eratzeko. Akats bat litzateke, izugarritzko akatsa. Zergatik? Euskal Herrian partidu politikoek arteko mugak oso oso oso

zurrinak direlako. Orduan zer paper dute momentu honetan? Nik uste dut laguntzaile papera izan beharko luketela, eta hori asko izango litzateke. Esan nahi dut: sortu behar da independentziaren aldeko mugimendu herri-tar transbertsal aktibo polarizatzaile bat, partidu politikoei, Katalunian gertatu den moduan (ez erabat), agenda, erritmoa eta diskurtsoa markatu behar dizkiona.

Diskurtsoa inportantea da, ze zer esango dugu, zer joango gara euskal nazioarekin? edo zer joango gara euskaldunak espainolen kontra subjektu independentista egituratzera? Diskurtso horrekin? Ez, ez. Beste diskurtso bat behar dugu hobe bizi nahi dutenak, demokratak. Diskurtso hori txertatu behar dugu eta independentziari alde ona eman.

Zentzu horretan partidu politikoek egin beharko luketena da ez moles-tatu hori, ez saiatu kontrolatzen mugimendu herritar hori, baizik eta utzi egiten. Eta nik uste dut ematen duena baina zailagoa dela hemen, Euskal Herrian, hori egitea.

Hori guztiz sartuko litzateke mobilizazioen teorian edo zuk askotan hitz egin duzun populismoaren teorian, hau da, erlazionatuta dago teoria hori botere posizio hori lortzearekin. Hau da, nola lortu populismoaren bidez helburu horiek? Esplikatu pixka bat hori.

Laclau eta Mouffek oso ideia interesgarriak dituzte. Ez da doktrina moduan hartu beharrik, ze badaude ideia batzuk beharbada guretzat balio ez dutenak. Baina doktrina ez da ezer Filosofia politikoan doktrina bezala hartzen baduzu zerbait eraginkortasuna bukatu zaizu.

Beraiek, eta feminismoak ere, subjektu esentzialistek zer limite dituzten konturatzea eta beste era bateko subjektu eraginkorragoak egituratzeko erremintak ematen dizkigute.

Zuk askotan esan duzu, eta asko gustatu zait, subjektua da estrategien multzoa, ez?

Bai, eta identitateak estrategiak dira.

Eraikuntza dira. Populismoaren teoriak badauka begirada hori, zeinaren bidez dena ikusten den eraikia bezala eta ematen dizkizu tresnak, hain zuzen ere, subjektu berri bat eratzeke.

Bai, eta deseraitzeko. Hori inportantea da. Adibidez abertzaletasunaren kontuarekin oso agerikoa da. Abertzaletasuna ulertu izan dugu oso modu absolutuan. “Gu gara euskal naziokoak”, zergatik? Hemen jaio gare-

lako eta kito, ez dago eztabaidatzerik. Eta halako batean esatea abertzale-tasuna estrategia bat dela, nazioa dela erreminta bat subjektu politiko bat egituratzeko, ari zara deseraikitzen, hau da, erlatibizatzen.

Erlatibizatzen duzun neurrian, esan nahi duzu beste erreminta batzuk badaudela, beste modu batzuk egon daitezkeela, eta orduan ja sartzen duzu nire ustez oso inportantea den gauza bat politikan: eraginkortasuna. Eraginkorra da hau? Ja galdera hori egin dezakezu. Modu absolutuan planteatzen baduzu, galdera horrek ez du lekurik. Ezin duzu galdetu: eraginkorra da hau? Ez, ez, hau da dagoena, hau da bakarra, hau da absolutua.

Erlatibizatzeak ekartzen duena hori da, politikan oinarri-oinarrizko kontzeptu hori sartzen duzu: eraginkorra da? Bai? Oso ongi, jarraitu. Ez? Bilatu dezagun beste zerbait.

Eta hori da egin duena, adibidez, Laclauk populismoaren teoriarekin. Baina ez Laclauk bakarrik, baita Judith Butlerrek ere. Ikaragarri lagundu dute horretan, eta feminismoak berak, ere: esaten duenean “subjektu politikoa bilakatu behar gara” hori ari da esaten, eraginkortasuna irabazi behar dugula. Gu ez gara emakumeak eta kito. Onartzen baduzu ez dagoela zer egiterik, zu izango zara emakumea beti, gizonezkoen menpe egongo zara, onartzen ari zara statu quo guztia. Ez, ez. Erlatibizatu behar da. Statu quoa aldatzeko erlatibizatu behar duzu. Ez, ez, patriarkatua edo estatu espainiarra edo berdin zait zer, ez da betiko gauza bat modu naturalean sortu dena, aldatu daiteke. Jakina, borroka politikoaren bitartez.

Azken finean deialdi bat da borroka egiteko, eta gauzak aldatu daitezkeela jakiteko, eta hau ez dela normalitatea “porque sí”, guk beste normalitate askoz egokiago bat sortu dezakegula, eta horretara joan behar dugula.

Hauek ere erabiltzen dute “Acontecimiento” kontzeptua. Zuretzat zein izan daiteke, edo zeintzuk izan daitezke prozesu honetan jazoera edo akontezimendu horiek?

Akontezimenduak gozada bat dira. Espero ez duzun zerbait gertatzea zoragarria da, bestela zer monotonoa izango zen bizitza.

Leninek, iraultza gertatu baina 6 hilabete lehenago, eman zuen hitzaldi batean esan zuen “nik ez, baina gure seme-alabek iraultza sozialista ezagutuko dute”, eta handik sei hilabetetara Errusiako iraultza izan zen.

Politikan, eta hori da polita, ezin duzu esan “hau horrela izango da”, nahiz eta hemen ere gertaeren oso ikuspegi lineal, mekanizista, determi-

nista izan. Guztia modu mekanikoan gertatuko balitz, zer aspergarria, ni etxean geldituko nintzateke.

Akontezimenduak gertatzen dira, noski. Derrepente gertatzen dira. Nik uste momentu honetan eman behar dela halako zerbait. Independentismo barruan nahas-mahas batean gaude. Zaharra hil da, berria ez da oraindik sortu. Badaude marrazki batzuk (horretan ari gara gu eta beste batzuk, ezta Jule? Saiatzen behintzat, ez?). Pieza guztiak apurtuta daude, beste pieza berri batzuk sartu dira, eta dena nahas-mahas dago. Zer izango zen akontezimendua? Ba, etortzea norbait, edo etortzea pertsona batzuk eta errelato bat proposatzea, eta derrepente pieza guztiak enkajatzeara. Horrek zer ahalbidetzen du? Izugarritzko potentzialtasuna, izugarritzko indarra.

Kristalizazio moduko bat izango litzateke?

Bai. Zuk kaos izugarri bat ikusten duzu eta derrepente norbaiten esplikazioarekin dena ordena berri batean ikusten duzu. Eta hori litzateke akontezimendua. Nik uste independentismoak horrelako akontezimendu bat behar duela, horrelako kosmobisio berri baten esplikazioa. Hor beti Kopernikoren adibidea jartzen dut: teoria geozentrikotik teoria heliozentrikora pasatu zenekoa. Kopernikok, azken finean bera zientifikoa zen, begiratzen zuen zerura eta esplikazioa zen lurra geldirik zegoela zentroan eta beste guztia inguruan mugitzen zela. Baina berak zeruan egiten zituen obserbazioetan ikusten zuenak pentsarazten zion “ez da posible”. Zegoen marko orokorrarekin ez zen posible aurrera egitea. Zientziak ezin zuen aurrera egin. Halako batean 180 graduko buelta emanda, beste errelato bat emanda, pieza guztiek enkajatu egiten dute. Ba independentismoan antzeko zerbait egin beharko genuke.

Momentu honetan behar dugu errelato berri bat (hori izango litzateke akontezimendua) pieza horiek enkajatzeko dituenak. Eta gainera ahalbidetuko liguke izugarritzko potentzialtasuna, izugarritzko indarra, behar dugun hori.

Independentzia noizko?

Independentzia noizko? Estatu bat Euskal Herrian noizko? Data zehatza.

Ni optimista naiz. Nik uste gauzak ongi eginez gero, hemen 3 urtetan estatu propio bat izan dezakegula. Baina izango naiz pesimista eta orduan

esango dut lau urte barru: 2019. Hori da nik pentsatzen dudana: 2019rako estatu bat izango dugu Euskal Herrian.

Eñaut Apaolazari elkarrizketa

Independentzia zergatik?

Unai Apaolaza: Independentzia zergatik?

Eñaut Apaolaza: Zergatik, edo zergatik ez, edukietan dago asuntua. Independentziaz hitz egiterakoan zeri buruz hitz egiten ari garen ere jakin beharko genuke. Hau da, independentzia ez da instituzio batzuk edukitzea: badaukagu parlamentua, badaukagu administrazio oso bat, badaukagu egitura oso bat erabakiak hartzen dituena...

Baita ere hor egon beharko litzateke gogoeta bat: zer nolako edukia nahi dugu edukitzea independentzia horrek, edo erabaki ahalmen horrek, edo soberania horrek. Eta hori da funtsezko galdera: parlamentu bat edukitzeaz aparte, ejekutibo bat edukitzea, egitura administratibo oso bat, benetan hori da independentzia edukitzea? Edo hori baino haruntzago pentsatu behar dugu eta gure herriko biztanleak hobeto biziko diren eta beraien bizitzarekin zerikusia duten erabaki guztiak hartzeko gaitasuna edukiko duten pentsatu behar dugu. Erantzuna baiezkoa den momentuan, orduan, ja, soberaniaz hitz egiten ari gara.

Beti komentatzen dena: independentziaren aldeko posturari kontra egiteko ez al da erabiltzen estatu batek ez duela independentzia ematen hori? Zein

Testu hau *Begi Bat Bideoak*-ek egindako OTORDUAK saileko <https://youtu.be/uQFTj0jJe6k> elkarrizketaren transkripzioa da. Eñaut Apaolaza EKAI Centerreko ekonomilaria da.

neurritaraino estatu batek berma dezake soberania hori, edo ez, batez ere mundu globalizatu honetan?

Klaro, estatu bat edukitzeak ematen dik aukera baliabide gehiago edukitzeke estatu bat ez edukitzeak baino. Hik estatu bat daukaan momentuan, ja badaukak, aukera behintzat, edo askoz hobeto hago hire biztanleekiko behar diren erabakietan gauza gehiago determinatu ahal izateko. Momentu honetan ikusi egiten dugu Euskal Herrian eta euskal komunitatean eragina duten erabaki asko ez direla hartzen Euskal Herrian. Eta ez dira hartzen gainera Euskal Herrian pentsatuz, eta ondorioa txarra izaten da. Hori gertatzen dek mediko batek okerreko diagnostikoa egiten baldin badu eta okerreko botika eman, azkenean gaixoak txarrera egiten dik.

Euskal Herrian estatu bat bideragarria izango zen ekonomikoki?

Lehenengo erantzuna kategorikoa izan beharko litzateke: bai, Euskal Herria bideragarria litzateke ekonomikoki. Hor, soberania hartze horretan, orokorrean ez da erabakitzen arrazoi ekonomiko hutsengatik, eta Euskal Herrian gogoeta hori beranduago etorri da. Lehenagotik pentsatu izan direlako beste faktore batzuk independentziaren aldeko hautua egiteko. Oinarrian bazegok komunitate zentzu bat, eta komunitate zentzu horren gainean eraikitzen dek borondatea independentziara joateko, eta gero, borondate horrek dizkik hainbat osagai eta ekonomikoa, noski, oso inportantea dek. Eskozian ikusi diagu zer pasatu den, azken momentuan balantza determinatu egin dik faktore ekonomikoak, batez ere beldurraren bidez.

Ekonomiaz hitz egiterakoan baita ere, eta askotan ez diogu eman behar duen inportantzia, gizartea irudikatzeke momentuan, gizartearen beraren eski ez dagoen zerbait bezala ikusi izan diagu bilakaera ekonomikoa. Eta kontuan izan behar diagu, nolako ekonomia daukagun halako gizartea edukiko dugula. Ari gaituk gizartea egituratzen duten elementuei buruz hizketan eta elementu horiek, baliokide horiek, generalean tradukzio bat daukate ekonomiaren munduan, eta horren gainean erabakitzeke gaitasunik ez baldin badaukagu, eta ez baldin badugu gerorrek imajinatzen nolako ekonomia bat nahi dugun, ezin diagu imajinatu nolako gizartea nahi dugun. Beno, bai, imajina dezakegu, baina ez da errealia.

Oso barneratuta diagu ekonomia enpresarien eta fortuna handien zerbait dela. Azkenean oligarkizazioaz hitz egiten ari gaituk. Oso barneratuta diagu “guk ez dugu zereginik hortan”, eta azkenean konformatzen gaituk handik datozkigun papurren gainean.

Hori guk daukagu barneratua, baina European ez dek horrela. Han nabarmena dek ekonomia onura publikoko zerbait den neurrian interes publikoa duen zerbait dela, eta interes publikoa duen neurrian politikoez eskuratu egin behar dutela. Eta politikoak dituk azkenean herritarren ordezkariak. Orduan, herritarren interesen arabera erabaki behar dituk zer nolako egitura ekonomikoa nahi duten. Zer nahi duten: edo ekonomia finantziario bat, sinple esanda kasino ekonomia bat, edo nahi duten ekonomia indartsu bat izatea, errentak banatzen laguntzen duena aberastasuna sortzen duen momentutik, hau da, industria bat badaukana, edo nahiago den zerbitzuetara jo, edo turismoa lehenetsi edo eraikuntza lehenetsi, eta ikusi dugu zer pasatzen den eraikuntza lehenesten denean: krisi garaietan dena erortzen da eta pobrezia zabaldu egiten da.

Orduan erabaki oso inportanteak dituk maila ekonomikoan hartzen direnak gizarte baten etorkizunerako.

Hik uste dek Euskal Herri independente batek ekonomia justuago bat emateko aukera gehiago dituela estatu espainiarrak edo frantsesak baino?

Hori erabakitzeko momentua oraintxe dek. Euskal Herriak erabaki egin behar dik, bere garaian erabaki zuen bezala, eta industriaren alde apustua egin zuen bezala erabaki egin behar dik zer egitura ekonomikoa nahi duen. Nahi duen Espainian dagoen ekonomiarekin asimilatu: kostu baxuak, lan sari baxuak, irabazien gaineko kontrolik ez, ekonomiaren berraren finantziarizazioa, ekonomia errealetik aldentzea, hirigintzari eta turismoari pisua ematea, eta horrek kapa askoren pobretzea ekartzen dik. Ala nahiago duen iparraldeko estatuen eredua hartu: ezagutzan oinarritutako ekonomia bat, industriari pisua ematen diona. Behin erabaki hori egiten duenean erabakiko du nolako lantokiak nahi dituen, langileek zer parte hartze izango duten, handiagoa ala txikiagoa.

Egia da teorian estatu txikiak demokratikoagoak direla esaten dela, baina demokratikoagoak izango dituk, edo ez dituk izango hain dependienteak baldin eta beren lana ondo egiten baditek. Momentua orain dek. Erabaki egin behar diagu zer nolako egitura ekonomikoa nahi diagun etorkizunean Euskal Herria bere buruaren jabeago izan dadin eta bere erabakiak har ditzan. Erabaki egin behar du momentu honetan hartzen duen Mediterraneo aldeko estatuen eredua, potolo-potolo esanda, edo hartzen duen Europa erdialdea eta iparraldeko estatuen eredua. Momentu honetan esan daiteke ziur asko urte pare bat-edo alperrik galdu ditugula erabaki hori hartu gabe, eta horrek arrastatu egiten gaitu, gure erabaki ekonomikoak beste batzuk hartzen dituzten heinean.

Zergatik esaten duzu bi urte galdu ditugula?

Edo gehiago ez baldin bada. Zeren krisian zeremakiagu 2008tik, guri eragina benetakoa 2009-2010ean egiten hasi zitzaigun. Orduan hartu izan balira erabaki batzuk inbertitzeko industrian, ezagutzan, ekonomia aurreratuagoa egiten, beste kontu bat litzateke, baina ez da egin. Kontrara, geroz eta gastu gutxiago egin da. Esaten dira mezu oso arranditsuak baina horren benetako ekintzarik ez da ikusten.

Zer gertatuko litzateke Euskal Herri independente batean pentsioekin? Soldatak hobek izango lirateke? Lan-baldintza justuagoak izango genituzke?

Kontestu batean esaten diren gauzak dira. Beti beldurraren estrategia horretan. Kontuz, Espainiatik joaten bazarete, Espainiak ordaintzen dizkizue pentsioak eta ez dakit zer... Pentsioen debatea debate ustel bat da, oso erraz manipulatu daitekeen debatea.

Pentsioak nondik ordaintzen dira? Pentsioak ordaintzen dira lanetikan. Lana zenbat eta produktiboagoa izan, diru gehiago sortzen da, etekin handiagoa ateratzen zaio lan horri, kotizazio gehiago daude eta diru gehiago dago pentsioak ordaintzeko. Momentu honetan kontrako norabidean goaztik. Lana gero eta merkeagoa dek, gero eta kostu baxuagoak dizkik, Espainiatik ezarri zaigun lan-erreformak ekarri dik langileen pobretze izugarria, kotizazioak jaitea... Orduan, momentu honetan, Espainian ere pentsioak garantizatuak dauden zalantzazkoa da.

Egoera horri, Espainiak ordainduko ez lizkigukeen egoera horri, aurre egiteko oso inportantea da hemengo neurriak hartzea, Euskal Herriko neurriak hartzea. Eta neurri horiek dituk lehen esandakoak: gure ekonomia mailaz igo behar da. Izan behar dek ekonomia bat, orain arte izan den bezala, industrian oinarrituta, zeren industriak garantizatzen du diruaren banaketa justuago bat, distribuzio justuago bat, lanaren desberdintasun gutxiago langileen artean eta aberats eta pobreen artean.

Gaur egungo industriak ere beste ezaugarri batzuk izango litzuzke produktibitate ikuspegitik, hau da, maila jasokoa den neurrian balio erantsi handiago sortzeko kapaza da eta ez dik lehiatu behar langileen soldatarekin. Beraz, langileen soldatak altuagoak izanda, diru gehiago ateratzen da, eta orduan pentsioak ordaintzeko diru gehiago ateratzen da.

Baina are gehiago esango diat, ze guk badugu problema bat, gure biztanleria zahartzen ari dek, pentsiodun gehiago izango dizkiagu. Zein litzateke horren soluzioa? Eten egin beharko litzateke kotizazioak eta pen-

tsioen ordainketaren arteko lotura hori. Pentsioak ez dira zertan kotizazio-tik ordaindu behar. Pentsioak ordaindu daitezke zergen zaku handi horretatik. Ezerk ez du galarazten hori. Eta momentu honetan eztabaida hori ez dago mahai gainean.

Finean, pentsioak ordaintzeko kapaza izango litzateke Euskal Herri independentea? Bai, eta gainera momentu honetan bere kabuz erabaki batzuk hartzen hasiko balitz soberaniaren bidean, are errazago izango litzateke, mailaz igotzen den ekonomia baterantz joko balu.

Unionismotik egiten den beste mehatxu bat da independente eginez gero Europatik kanpora aterako garela, eurotik kanpora aterako ginela, Espainiarekin ere harremanak eten egingo liratekeela... Faltsuak dira? Egia dira?

Espainia eta Euskal Herria artean banaketa gertatuko balitz banaketa hori nola gertatzen den determinantea da. Akordio bidez gertatze baldin bada, gauza hauek soluzionatuta zeudek. Ez badek gertatzen akordio bidez (eta badirudi gertatzen bada ez dela gertatuko akordio bidez, gauzak nola daudden ikusita), logikoa dek horrelako mehatxuak erabiltzea erabakia hartzeko momentuan. Erabakia hartu eta gero zentzurik ez daukaten gauzak dira.

Zergatik nahiko luke Europak Euskal Herria bezalako lurralde bat, lurralde industrializatu bat, errenta aldetik batez bestekoaren gainetik dagoena, Europatik kanpo eduki? Hor bazegok datu bat: Espainiaren erreskatea, gertatu ez zen erreskate famoso hori, baina bankuak erreskatatzeko balio izan zuena. Europak eman omen zion Espainiari, ez dakit zenbat erabili zuten azkenean, 100.000 milioiko funts bat, eta horren arabera hainbat murrizketa hartu ziren. Euskal Herria ez zegoen erreskatatuen artean, nahiz eta Espainian egon. Erreskatatzaileen artea zegoen. Euskal Herriak bere errenten bidez Europari ematen diona erabili zen Euskal Herrian ez zeuden entitate finantziario batzuk erreskatatzeko.

Europak zergatik nahiko du erreskateetan parte hartu duen lurralde bat kanpoan utzi? Aberastasuna batez bestekoaren gainetik, eta beraz, solidaritate mekanismoetan aportatu egingo duen estatu bat kanpoan utzi? Arrazoiak bakarrik dituk negoziazio agresibo testuinguru batean erabili daitezkeenak. Behin negoziazio agresibo fase hori gaindituta, logikoena da pentsatzea Europak nola edo hala, topatuko lukeela bideren bat Euskal Herria kanpoan ez gelditzeko.

Beste eztabaida bat litzateke, ere, Europar Batasunetik kanpo gelditzeak zer onura edo kalte ekar dezakeen. Askotan ematen du Europar Batasunetik kanpora ez dagoela ezer, baina baditugu hor estatu batzuk Europan bertan eta inongo arazorik gabe funtzionatzen dutenak.

Bai, baina gertatzen dek hor politikoki oso koste handia daukan zerbait dela. Horrelako planteamendu bat egiten duena Europa hain ongi ikusia dagoen gizarte batean, Europatik kanpo egotea gauza txar bat bezala ikusten da.

Beste gauza bat dek euroarena. Gero eta gehiago zalantzan jartzen da euroan egotea ona edo txarra den. Euroa, desde luego, diseinu txarreko proiektu bat izan zen. Gaizki diseinatu zen, korrika eta presaka egin zen, egundoko gabeziak ditu eta momentu honetan hori sufritzen ari gara.

Alde horretatik, Euskal Herri independente bat eurotik kanpo egotea ona edo txarra izango litzatekeen? Barruan egotea baino, kanpoan egoteak emango lizkioke tresna batzuk bere politika monetarioa garatu ahal izateko eta jokatzeko monetarekin, ere, ekonomiaren beharrei erantzun ahal izateko. Berez ez du zertan txarra izanik. Ondorio txarrak izango ditu? Agian, hasiera batean ondorio txarrak eduki ditzake. Aurrera dihoan ahala, lehen aipatu dudan soberaniaren bide horretan urratsa da. Hire moneta kontrolatzeko gaitasuna badaukak, askoz maniobrabilidade handiagoa daukak, baita ere, hire ekonomia egituratzeko momentuan.

Krisia gora-behera, zer suposatu du Hego Euskal Herriarentzako Espainia barruan egoteak? Edo estatu independente bat edukiko bagenu krisiak berdin eragingo liguke? Edo Espainia barruan egoteak, azken finean, askoz dependienteago egin gaitu Espainiarenkiko?

Ni konbentzituta nago krisiak asimilazio handiagoa ekarri duela Espainiarenkiko.

Aldi berean, ekarri ditu nolabaiteko independentismorako baldintza hobeak, ez?

Horrexegatik. Krisian pobretze orokor bat gertatu dek. Gertatu dek euskal industriak ehuneko pisua BPGn hiru puntu galdu dizkiala, %26tik %23ra pasa dek. Soldatak jaitsi egin dituk, familien errentak eta pertsonen errentak denak jaitsi egin dituk. Orduan, okerrago gaude. Eta jendeak badike pertzepzioa hor hartu diren erabakiak Espainiak determinatu dituen erabakiak izan direla. Gure finantza sistema hankaz gora joan dek. Espainiak

erabaki zuen lan-erreformak langileen pobretzea ekarri zuen, pentsatuz konpetitiboagoa izango zela Espainiarako.

Espainiarako hori akaso ona izan zitekeen, zalantzan jartzen diat, baina Euskal Herrirako izan da letala, langileen ikuspegitikan eta ekonomiaren garapenaren ikuspegitikan. Genituen ongi ordaindutako langileak, baina konparatiboki produzitzen zutena zen soldata baina gehiago. Hau da, produktibitatea Espainiarekiko zen %130 eta soldatak ziren Espainiarekiko %120. Orduan, hor gap bat bazegoen aberastasunaren sorreraren alde eta enpresarien alde. Eta zer esan da behin eta berriz? Hemen gehiegi kobratzen dela. Bai, baina are produktibitate handiagoa daukagu. Honek ekarri duena, lan-erreforma honek, izan da pobretzea; langileak pobretu egin gaituk. Pobretu egin dek generalean langile jendea eta ikusten da Espainiaren erabaki batzuegatik izan dela, ze eraman du gure ekonomia tentazio batera: kostuen bidez lehiatu daitekeela pentsatzera. Eta justu kontrakoa da. Euskal ekonomia lehiakorra izan dek batez ere gauzak ongi egin dituelako eta merkatuan gauza horiek pagatu egiten zirelako. Orain, berriz, pasatzen ari gaituk pixkana-pixkana, zoritxarrez, beste paradigma horretara, eta beste paradigma horrek ekartzen duena da krisien aurrean bulnerable izatea, pobretze orokorra eta desberdintasunak handitzea, eta aldi berean ekonomiaren finantziarizazioa, eta ekonomiaren finantziarizazioak esan nahi du ekonomia aldendu egiten dela herritarrengandik, eta oligarkia handien esku bakarrik gelditzen dela.

Gure sistema finantzieroa ere birrindu egin dugu. Guk bagenituen bankuak, CAN eta Kutxak, eta horiek ziren gure ehun industrialari eta gure ehun ekonomikoari kobertura ematen ziotenak. Ba, gure zabarkeriaz eta Espainiaren laguntzarekin kargatu egin dugu. Eta gero, horrezaz gain, faktore objektibo ekonomikoak izan daitezkeenaz aparte, badaude faktore psikologikoak. Gure erreferentzia bakarra gauza guztietarako, onerako eta txarrerako, Espainia den neurrian, eta gure dirigente politikoentzako bakarrikan paparra ateratzeko balio baldin badu Espainiarekin denbora guztian konparatzeak, Espainiako joerak, politikak eta egiteko moduak bihurtzen dira erreferentzia bakar, eta Espainiako politikak gurean aplikatzea, objektiboki erabat diferentea den gizarte batean, lehen esan bezala, letala da.

Ba al dago estrategia independentistarik?

Ba al dago estrategia independentistarik?

Nik esango nikek ez dagoela estrategia independentistarik. Baina, are gehiago esango diat, nire ustez momentu honetan ez zagok ezta estrategia autonomista bat ere. Momentu honetan, geneukana mantentzeko estrategiarik ez diagu. Lehen geneukana, gutxi edo gehiago, gizartea egituratzeko baliagarria izan da, estrategia bat izan da, eta ja ez diagu ezta hori ere.

Horrek eskatzen dik gure ekonomian inbertitzea, eta gure ekonomian inbertitzeko gaitasuna galtzen ari gaituk. Eta ari gaituk galtzen Europako batez bestekoaren azpitik. Eta beti ari gaituk esaten gu garela herri aurreratu bat, teknologia aurreratua duena, eta hori momentu honetan ez dek egia. Ze ikusten baldin badiagu Europako batez bestekoaren azpitikan gaudela ari gara esaten Europako erdi pare horretan gabiltzala, ez one nekin. Eta guk aspiratu behar dugu, ez konparatzera gure burua erdi maila horretan dauden horiekin, are gutxiago Espainiarekin, baizik eta Escaniarekin, Finlandiako ez dakit zer lurralderekin, Alemaniako ez dakit zer lurralderekin... ez estatuekin. Gure tamaina daukaten lurraldeekin baizik.

Entzuten da ea berriro kooperatibismoaren inguruko bigarren olatu bat ba ote datorren... guzti hori nola txertatu daiteke estrategia independentista batean? Edo zer da baliagarria esperientzia horretatik?

Bai, nik horrela planteatuko nikek, zer den baliagarria. Kooperatibismoa ezin da orokortu. Gaur egun, gauden testuinguruan, ezin da orokortu. Baina aldi berean ere ematen dik arraste gaitasun bat duela, eredu bat markatzen dala, gero, beste gauza batzuetan semikooperatibismo modu bat-edo erabil daitekeela iradokiz. Kooperatibismo mundua, eta batez ere Euskal Herriko kooperatibismoaren ezaugarri bereziena da kooperatibismoa industrialaren dela. Munduan kooperatibismoa industrialaren adibide oso oso gutxi zeudek. Eta ziur asko esanguratsuena izango dek euskal kooperatibismoa industrialaren.

Horrek, jatorriak, kooperatibismoarekin gertatzen den bezala eta ekonomia sozialarekin gertatzen den bezala, bazegok herritarren ahalduntze bat, gabezi egoera baten aurrean, hau da, euskarazko hezkuntza falta denean, kooperatibak sortu ditu. Edo osasun gabeziak daudenean kooperatibak sortu dituk. Lana falta edo lan prekarioa zegoenean, gerrak txiki-

tu zuen lurralde batean, Debagoienan, herritarrak ahaldundu hituen eta sortu zituzten kooperatibak. Kooperatibek ezaugarri modura, herri ikuspegitik, gauza onak asko ditiztek, eta dituk, batez ere, ahalduntzearekin lotutakoak. Ekonomian ahalduntzen bahaiz, berbera egiten dek gizartearen beste arlo batzuetan. Eta horrek ekartzen dik jendea konprometitzeko gaitasuna; egoera txarren aurrean, bere kasa soluzioak topatzeko joera hori. Eta, baita ere, gizartea ulertzeko kapazidade handiago bat, ekonomian aktore bihurtzen diren neurrian. Aktoreak ez dituk enpresen jabeak, ja aktoreak dituk langile-enpresario diren horiek, bazkideak.

Hori Debagoienan ikusi da, zeren gero entornoan ekimen berriak sortzeko gaitasuna izan dute; bai hezkuntzaren ikuspegitik edo, baita ere, eraldatze soziala helburutzat hartuz, hainbat ekimen hartzeko.

Motor hori, neurri batean, egia da, gripatu egin da. Momentu honetan dimentsioz handitu direnean, lurralde berritara joan direnean, eta abar, motor hori gripatu egin da. Baina muina hor dago. Eta kooperatibismoak zer ekar diezaiokeen herri soberania hartze horri? Ahalduntzea. Jende formatua ekar diezaioke, ekonomiaren gainean protagonista izateko nahia eta kapaza den jendea edukitzea.

Nahiz eta anekdotikoa izan, Euskal Herriko testuinguru orokorrean badauka, baita ere, eredugarritasun bat kooperatibak beste gauza batzuetara kutsatzeko gaitasuna izan dezakeena.

Independentzia nola?

Estrategia independentista bat gaur egun aurrera ateratzeko zer baliabide, zer baldintza ditugu?

Lehen esan dugun edukiz betetako soberania hori izan beharko genuke ipar, zeren hori da, azkenean, herritarrak hobeto bizitzeko modua eta beraien bizitzaren jabe izateko modua garantizatzea.

Bi gauza izan beharko dizkiagu kontutan, seguraski. Batetik euskal ekonomia produktiboagoa izan behar da, hau da, aberastasun kualitatiboa sortzeko kapaza izan behar dek, berdintasunean, ingurumenarekin errespetu handiagoz, eta aldi berean ezagutzan oinarritu industria hori. Hau da, maila teknologiko altua, langile formatuak, eta abar.

Konbentziturata neok horretan momentu honetan eragile diren guztiak ados etorriko direla behintzat maila idealean. Gehiengo sindikalak lan handia egin du mezu horiek ematen. Beste gauza bat da zer neurritaraino iritsi diren mezu horiek. Baina horrek eskatzen dik baita politikoek, gure poli-

tikoek, inkluso oposizioan egonda, hori imajinatzen hasi behar dutela eta horrekiko arduraz jokatzeko. Sindikatuek, esan dugu, gutxi gora-behera klabe horietan kokatu xamar daudela. Ziur asko gauza asko hobetu daitezke, baita ere sindikatuen jardunean, zabalduz beren ekinbidea momentu honetan kanpoan dagoen jendearengana, eta haiek lan munduan txertatzeko bideak bilatuz. Baina batez ere enpresarien ikuspegitik. Enpresariak, ematen dik, aho txikiarekin esaten ditek Espainia markak kalte egiten diela, batez ere kanpoan daudenean. Baina aho txikiarekin hori esanda ere, gero, epe motzeko gauzetara eta oso interes pertsonaletara mugatzen dira. Epe luzera begiratzen hasiko balira, gauza hauetaz jabetuko lirateke. Beraiek ere bazekitek beraien jarduera eta epe luzeko irabaziak garantizatzeko horrelako neurriak hartu behar direla. Gure industria maila altxatu egin behar dela, gure ezagutza handitu egin behar dela, inbertsioak egin behar direla, eta abar. Politikoen erantzukizunaz esan diat lehen.

Eta bigarren gauza bat bazegok, baita ere, eta hau hainbeste aipatzen ez den kontu bat dek: giza eskubideen gaia. Eskubide sozialetaz, etxebizitza eskubideaz... hitz egiten da. Etxebizitza eta lana giza eskubideak dituk. Orduan, ikuskera zabala eduki behar diagu. Herri honetan kateatzen ari gaituk giza eskubideen eztabaida batean inora ez garamatzana. Eta hori gainditzeko moduetako bat nik uste diat izan daitekeela giza eskubideen ikuspegi orokor bat edukitzea. Azkenean, herri bezala, denerako ona izango da. Hau da, giza eskubide horietan baita ere sartzen da bizitza duin bat izateko eskubidea, lan duin bat izateko eskubidea, etxebizitza izateko eskubidea; azkenean, bizi ahal izateko eskubidea. Ze, ezin gaituk bizi, ez baldin badugu bizibiderik, ogia mahaian jartzerik ez baldin badiagu, edo gauean intimitate espaziorik ez baldin badiagu lotara joateko edo kontuak kontatzeko, berdín zaidak.

Azkenean hori ere presente edukitzen bada, horrek ekarriko dik baita ere arlo ekonomikoan, beste eszenario batera eramango gaituzten erabaki batzuk hartzera.

Zer urrats eman daitezke?

Imajinazioa hegan jarri, baina ez inora ez dihoan gauza batean pentsatuz, herri libre bat izango garela. Ez. Hori edukiz janztzerakoan imajinazioa jarri eta pausoak ematen hasi arduraz. Alferrikako debateak, publizitate mezuak eta horiek ez doaz inora, eta konparazio absurdoak egitea ez doa inora. Inportantea da imajinatzen hastea eta pausoak ematen hastea.

Independentzia noizko?

Porra bat egiten ari gara: independentzia noiz? Noiz hemen, Euskal Herrian, estatu bat? Behartuta hago erantzutera. Ez diat eskatuko hilabetea edo eguna, baina bai urtea.

Jo, beldurra ematen dik horrek.

Independentzia lortzen denean irabazten duenari urdaiazpikoa ordainduko diogu.

Orain dela 15 urte esan zuen estatutua hil zela gehiengo sindikalak.

97an bai.

Ba, atera kontuak. Ja 17 urte joan dira eta estatutua hilda egon arren oraindik hortik zebilek bueltaka. Pentsatzen diat 17 urte horiek baina gutxiago izango direla, ze, egia esan, egoeraren gordinena oraindik, konbentziturata nago, ez dugu bizi izan. Krisi orokor honek geldialdiak izango ditu, baina okerrenea oraindik ez dugu bizi. Egoera okertzen dihoan ahala, lehen aipatu ditugun erabaki horiek, nahi dugun eszenario hori imajinatzea azeleratu egingo da.

Urtea esan behar diat? 17 urte pasa dituk harrezkero, nik beste 17 erantsiko zizkioat, pentsatuz urruti joaten ari naizela, baina, beno, kubritzeagatik.

Urdaiazpikoa dago jokoan, eh?

Beno, ba 2030ean bai.

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....